



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**2013ko MAIATZAREN 23an EGINDAKO  
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Olaberrian, 2013ko maiatzaren maiatzaren 23an, 18:05ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito, Udaleko Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN  
ONARPENA.**

- 2013ko urtarrilaren 24ko Batzarraren akta

Gehiengo absolutuz onartzen da, BILDU taldeko zinegotzien aurkako botoarekin.

Sarasola jaunak, bere botoaren zentzua azaltzeko dio zinegotzi batek esan zuen gauza zehatz bat entzuteko grabaketa eskaerari ez diotela jaramonik egin.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO  
CELEBRADO EL 23 DE MAYO DE 2013.**

En Olaberria, a 23 de mayo de 2013, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales José Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, José Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.

**APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA  
SESIONES ANTERIORES.**

- Acta de la Sesión del 24 de enero de 2013

Se aprueba por mayoría absoluta, con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU.

El Sr. Sarasola como aclaración al sentido de su voto aduce que ya solicitaron la grabación correspondiente a esta sesión para escuchar una afirmación concreta realizada por un



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

Grabaketa entzutea berriz eskatzen du.

- 2013ko martxoaren 21eko Batzarraren Akta.

Akta aho-batez onartzen da, BILDU taldeko Iñigo Sarasola zinegotziak honako zehaztasun hau egiten duelarik: bere taldeak akta onartuko du baldin eta etxe-kaleratzearen inguruko mozioa BILDUK aurkeztu duela jasotzen bada.

Udal kideak proposamenari adostasuna ematen diote.

### **ALKATETZAKO GAIAK**

#### **ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 33/2013tik 57/2013-ra bitartean.

Sarasola jaunak ondoko aipamen hau egiten du: kontratazio prozedura guztietan bere taldeak gutxienez, bat, bi edo hiru aurrekontu eskatzea.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

#### **IKUSKARITZA PROZEDUREN BAITAN EMATEN DIREN ZEHAPENEN BARKAMEN ERREGIMENAREN ONARPENA.**

Joan zen Batzorde Informatzaileetan

concejal, sin que hasta la fecha se le haya proporcionado. Reitera su solicitud.

- Acta de la Sesión de 21 de marzo de 2013

Se aprueba el acta por unanimidad con la siguiente puntualización realizada por el concejal de BILDU Iñigo Sarasola: su grupo aprueba el acta siempre que se recoja en la misma que fue BILDU el que presentó la moción sobre los desahucios.

Los corporativos se muestran de acuerdo con la propuesta.

### **TEMAS DE ALCALDIA**

#### **DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 33/2013 al 57/2013.

El Sr. Sarasola pone de manifiesto que, para los todos los procedimientos de contratación, su grupo solicita que se pidan al menos uno, dos o tres presupuestos.

Los Corporativos quedan al corriente.

#### **APROBACIÓN DEL RÉGIMEN DE CONDONACIÓN DE SANCIONES EN PROCEDIMIENTOS DE INSPECCIÓN.**

Se informó a los Corporativos en la pasada



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Udal-kideei jakinarazi zitzaien.

Gobernu taldeak, ikuskatze prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamenaren inguruan ondoren aipatzen diren irizpideen onarpena proposatzen du:

Olaberriko Udalak 2012.urtean Udal Zergekiko ikuskaritza prozedurari hasiera eman zion, 110/2012 alkatetza ebazpen bidez onartu zen Zerga Ikuskaritza Planaren bidez. Lan horiek jarraipena izan dute 2013. urtean, 3/2013 alkatetza ebazpen bitartez onartu egin zen Zergen Ikuskaritza Planaren bidez.

Kontutan edukiz, ikuskatzaileen jarduketan amaierak, zergapekoaren zerga betebeharrak erregularizatzear gain, zigorra dakarrela berekin.

Ikusirik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, IV tituluan, zerga zorrei ezartzen zaizkien zigorrak banan-banan arautzen dituela, bai gaiaren ikuspegitik bai formarenetik ere.

Kontuan izanik, aipatu tituluan zigorraren zenbatekoa %40 murrizteko aukera ematen dela zergapekoak erregularizazioari nahiz zigorrari adostasuna ematen dienean.

Adierazitako murrizketaz gain, aipaturiko arauaren 194-3 artikulua zerga zigorrak barkatzeko ahalmena aurreikusten du, Alkateak hala iritziz gero.

Zerga ikuskaritzako prozedurak ez ohiko prozedurak direla kontuan izanik,

Comisión Informativa.

El grupo de gobierno propone la adopción de los siguientes criterios para la condonación de sanciones en procedimientos de inspección:

El Ayuntamiento de Olaberria inició en el año 2012, tras la aprobación del Plan de Inspección de Tributos mediante decreto de alcaldía 110/2012, proceso de Inspección de los Tributos de carácter Municipal, trabajos que han tenido continuidad en el ejercicio de 2013 con la aprobación, mediante decreto de Alcaldía 3/2013, del Plan de Inspección de Tributos para el ejercicio en curso.

Considerando que la terminación de las actuaciones inspectoras conlleva una sanción, además de la regularización de la situación tributaria del obligado.

Considerando que el título IV de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula las sanciones de manera autónoma de la deuda tributaria, tanto en sus aspectos materiales como formales.

Teniendo en cuenta que en dicho título se establece la posibilidad de reducción del 40% de la sanción para los supuestos de conformidad del obligado tributario, tanto a la regularización como a la sanción.

Además de la aplicación de esta reducción, en el artículo 194-3 de la misma norma, se prevé la condonación de las sanciones de forma graciable.

Atendido el carácter excepcional de los procedimientos de inspección tributaria, se



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Olaberriko Udaleko zergen ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zerga zigorrak amaitzeko modu bezala, zigorrak barkatzea egoki iritzi da.

Barkatze ekintza hautazkoa bihurtu ez dadin, barkamena lortzeko bete behar diren baldintzak zehazten dira.

Olaberriko Udaleko zerga ikuskaritzako prozeduretatik eratorritako zerga zigorrak, Alkatetzak bakarrik barkatu ahal izango ditu. Barkamena pribilegio moduan emango da, kasu bakoitzarentzat finkatutako ehunekoei jarraiki eta ondorengo baldintzak betetzen direnean:

A.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 195, 196 eta 197. artikuluetan aurreikusitako zerga arloko arau haustearen ondorioz eratorritako zigorra denean.

B.- Zerga arloko arau haustearen ondorioz eratorritako zigorra izanik, prozedura adostasun aktaren sinadurarekin amaituta dagoenean.

C.- Zerga-zigorra barkatzeko ondorengo ehunekoak erabiliko dira:

1) %10ekoa, zerga arloko arau haustea lehenengo aldiz egin deneko ikuskaritza prozeduretan.

2) %10ekoa, zergapekoaren kolaborazioa egon deneko ikuskaritza prozeduretan.

ha considerando adecuada la condonación como forma de extinción de las sanciones tributarias derivadas de procedimientos de inspección de tributos del Ayuntamiento de Olaberria.

Al efecto de que la condonación sea lo menos arbitraria posible, se fijan las condiciones a cumplir para la obtención de la misma.

Las sanciones tributarias impuestas mediante procedimientos de inspección de tributos del Ayuntamiento de Olaberria, sólo podrán ser condonadas de forma graciable por la Alcaldía, en el porcentaje fijado para cada caso siempre y cuando se cumplan las siguientes condiciones:

A.- Que se trate de sanciones impuestas como consecuencia de infracciones tributarias contempladas en los artículos 195, 196 y 197 de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

B.- Que se trate de sanciones impuestas como consecuencia de infracciones tributarias cuyo procedimiento haya finalizado mediante firma de acta de conformidad.

C.- Los porcentajes de condonación serán los siguientes:

1) 10% para los procedimientos de inspección en los que la infracción tributaria se haya cometido por primera vez.

2) 10% para aquellos procedimientos de inspección en los que ha existido colaboración del



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

3) %50koa, likidazio guztiak (hala dagokion zergaren erregularizazioarenak, nola zerga zigorrarenak) luzatu eta gehienez ere, hurrengo 6 hilabeteetan ordainduko direla jasotzen duen ordainketa plan bat sinatu deneko ikuskaritza prozeduretan. Horretaz gain, barkamen portzentaje hau aplikatu ahal izateko, enpresak bere langile guztien lanpostuak mantendu behar izango ditu epe horretan.

Aipatu portzentaiak metatu daitezke, ondorioz zerga zigorraren barkamena, gehienez ere, %70ekoa izan daiteke.

Aurreko guztia kontuan izanik, murrizketaren eta barkamenaren artean, zerga zigorrak %82ko beherapena lortu dezakeela ondorioztatu daiteke.

Aldasoro jaunak zera proposatzen du: zehapenen barkamen erregimenari heltzen dioten enpresei, daukaten pertsonal guztia bertan mantentzearen konpromisoa hartzea, gutxienez ordainketa epean zehar.

Udal-kideak adostasuna eman eta Alkateak baldintza horren txertaketa agintzen du.

Gaia bozkatzeko da, gehiengo absolutuz onartzen delarik BILDU taldearen aurkako botoarekin.

Sarasola jaunak, bere taldearen botoaren zentzua argitzeko xedearekin ondoko

obligado tributario.

3) 50% para los procedimientos de inspección en los que se pacte un plan de de pago de liquidaciones (tanto de regularización del tributo correspondiente, como de sanción) como máximo de 6 meses desde la emisión de las liquidaciones. Además de lo anterior, para que se pueda aplicar este porcentaje de condonación, la empresa deberá mantener los puestos de trabajo de todos sus trabajadores durante dicho período.

Los precitados porcentajes son acumulables, por lo que la condonación de sanción podrá alcanzar como máximo un 70%.

Atendido todo lo anterior, se concluye que las sanciones tributarias podrán alcanzar una reducción total del 82% entre reducción y condonación.

El Sr. Aldasoro propone que para el caso en el que las empresas se acojan al régimen de condonación, se les ponga de condición que mantengan a todo el personal de su empresa, al menos, durante todo el período de pago.

Los corporativos se muestran conformes y el Alcalde ordena que se incluya esa condición.

Se procede a la votación, siendo aprobada la propuesta por mayoría absoluta con el voto en contra del grupo BILDU.

El Sr. Sarasola, con el fin de aclarar el sentido del voto de su grupo, dice que los



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

aipamen hau egiten du: jarraitu dezatela ikuskatzaileak haien lanarekin orain arte bezala, baina Soraluzekeo industri sarea ez dela Olaberrikoa bezala.

Alkateak erantzuten dio, ikuskatu behar diren enpresak aukeratzeko garaian parametro berberak erabiltzen direla Soraluzen eta Olaberrian, milioi bateko fakturaziotik gorakoak alegia.

**HERRIGUNE 1 EREMUKO 1.7**  
**LURSAILEAN 6 ETXEBIZITZETAKO**  
**BLOKE BATEN EXEKUZIOARI UKO**  
**EGITEA.**

Joan zen Batzorde Informatzaileetan Udal-kideei jakinarazi zitzairen.

2012ko uztailaren 26an egindako Ohiko Bilkuran, beste batzuen artean, honako erabaki hau hartu zuen Udalbatzak: CONSTRUCCIONES TRATI, S.L. enpresari esleitzea, Olaberriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako *Herrigune 1* Sektoreko HJE 1.7 eremuan kokatutako udal jabetzako lursailaren salerosketa, ondoren bertan prezio tasatuko 6 etxebizitza egiteko, bere urbanizazioarekin batera eta aipatu partzelari HJE 1.7 urbanizazio proiektuaren 1 faseari atxikitutako lagapenen egikaritza.

Aipatu etxebizitzaren esleipenaren inguruko hiru prozedura sustatu ondoren, egun bi esleipendun soilik daudela.

Kontutan izanik pleguen azken xedapenak diola etxebizitzaren bat saldu gabe geldituko balitz, Udalak hartuko lukeela jabetzan, honen esleipenari dagokionez egoki uste duena erabakiz.

inspectores sigan como hasta ahora con su trabajo, pero que el tejido empresarial de Soraluze no es el mismo que el de Olaberria.

El Alcalde le responde que los parámetros utilizados para elegir las empresas a inspeccionar es el mismo en Soraluze que en Olaberria, a saber, facturación superior a un millón de euros.

**DESISTIMIENTO DE LA EJECUCIÓN DEL BLOQUE DE 6 VIVIENDAS EN LA PARCELA 1.7 DEL SECTOR 1 HERRIGUNE.**

Se informó a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

Que el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria celebrada el 26 de julio de 2012, adoptó, entre otros, adjudicar a CONSTRUCCIONES TRATI, S.L. la compraventa de una parcela de propiedad municipal sita en la U.A.U. 1.7 del Sector 1 *Herrigune* de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Olaberria, para la posterior construcción de un edificio de 6 viviendas a precio tasado municipal y su correspondiente urbanización y cesión asociada como fase 1 del proyecto de urbanización de la UAU 1.7, a la citada parcela.

Que tras tres procedimientos de adjudicación de las referidas viviendas, en la actualidad únicamente hay dos adjudicatarios.

Teniendo en cuenta que en la disposición final de los pliegos se establece que en caso de que no se vendiera alguna de las viviendas, quedaría en propiedad del Ayuntamiento, tomando posteriormente la



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Kontutan hartuz Udalak ezin dituela esleitu gabe geratu diren 4 etxebizitzak bere gain hartu.

Aurreikusitako prezio tasatuan dauden 6 etxebizitzetako blokearen exekuzioari uko egitea proposatzen da, esleipendun suertatu den enpresari dagokion kalteordaina zein izango den erabakiz.

Gaia behar den bezala eztabaidatu ondoren bozkatzen da, erabakiak honako hauek izanik:

**LEHENENGO:** BILDU taldearen abstentzioarekin, Olaberriko *Herrigune 1* Sektoreko HJE 1.7 eremuan prezio tasatuko 6 etxebizitza egiteko, bere urbanizazioarekin batera eta aipatu partzelari HJE 1.7 urbanizazio proiektuaren 1 faseari atxikitutako lagapenen egikaritzari uko egitea.

**BIGARRENA:** BILDU eta OHE taldeen aurkako botoarekin, gehiengo absolutuz erabakitzen da, Construcciones Trati, S.L. enpresari ondoren zehaztutako kontzeptuengatik burututako gastuak itzultzea:

- Lur-sailaren erosketak
- Lursailaren erosketagatik eratorritako gastuak: notarioaren zerbitzu-saria, erregistroa.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkiak.
- Gastuen % 4-ko legezko interesa,

decisión que se estime oportuna en cuanto a la adjudicación de la misma.

Considerando la imposibilidad de que el Ayuntamiento se haga cargo de las cuatro viviendas que quedarían sin adjudicar.

Se propone el desistimiento de la ejecución del bloque de 6 viviendas a precio tasado previsto, y consiguiente indemnización a la empresa adjudicataria.

Una vez debatido el tema suficientemente, se procede a la votación, siendo los acuerdos adoptados los siguientes:

**PRIMERO:** Acordar, con la abstención del grupo BILDU, el desistimiento de la ejecución un edificio de 6 viviendas a precio tasado municipal y su correspondiente urbanización y cesión asociada como fase 1 del proyecto de urbanización de la UAU 1.7, a la citada parcela.

**SEGUNDO:** Con el voto en contra de los grupos BILDU y OHE, se acuerda por mayoría absoluta, proceder a la devolución a Construcciones Trati, S.L. de los gastos generados y realizados por la mercantil correspondientes a los siguientes conceptos:

- Compra del terreno
- Gastos originados por la adquisición de la parcela: honorarios notaria, registro.
- Anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
- Interés legal del 4% de los gastos a



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

lursailaren erosketa egunetik  
zenbatzen hasita ( 2012ko  
abuztuaren 29tik 2013ko  
maiatzaren 23rarte).

- Esleipendun izateagatik  
gordailutako behin betiko  
bermeak eragindako bankuko  
gastuak, bermea gordailatu zen  
egunetik zenbatzen hasiko delarik,  
2013ko maiatzaren 23-rarte.

Aipatu gastu bakoitzaren egiaztagiriak  
beharrezkoak izango dira.

**HIRUGARRENA:** BILDU eta OHE taldeen  
aurkako botoarekin, gehiengo absolutuz  
erabakitzen da Construcciones Trati, S.L.  
enpresa esleipenduna, ondoren aipatzen  
diren baldintzapean kalte-ordaintzea:

- Arlo Publikoko Kontratu Legearen Testu  
Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko  
3/2011 Erret Dekretu Legegilearen 239.4  
artikuluak xedatzen duenaren arabera,  
onura industrial gisa egin ez diren obren  
%6-a: 39.738,29 €.

- Salmentaren gaineko sustapen onura:  
9.473,00 €.

• **Ordain-sariaren zenbateko totala:**  
**49.211,29 euro.**

Sarasola jaunak hitza hartzen du  
ondorengo adierazpenak eginez,  
laburbilduz:

contar desde la fecha de compra de la  
parcela (29 de agosto de 2012 hasta  
el día 23 de mayo de 2013).

- Gastos bancarios originados por la  
garantía definitiva depositada por  
haber resultado adjudicatario, a contar  
desde la fecha de constitución de la  
garantía hasta el 23 de mayo de  
2013.

Será indispensable la acreditación  
documental de todos y cada uno de los  
gastos referidos.

**TERCERO:** Con el voto en contra de los  
grupos BILDU y OHE, se acuerda por  
mayoría absoluta indemnizar a la empresa  
adjudicataria Construcciones Trati, S.L. en  
los términos expuestos a continuación:

- En aplicación artículo 239.4 del Real  
Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de  
noviembre, por el que se aprueba el texto  
refundido de la Ley de Contratos del Sector  
Público, un 6% de las obras dejadas de  
realizar en concepto de beneficio industrial:  
39.738,29 €.

- Beneficio de promoción sobre la venta:  
9.473,00 €.

• **Importe total de la indemnización:**  
**49.211,29 euros.**

El Sr. Sarasola toma la palabra realizando la  
siguiente intervención que se recoge de  
forma sucinta:





**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

- Nahiz eta aspalditik esan proiektu hori horrela ez eramateko, ez zaie inongo jaramonik egin.
- Bere taldeak ez du diru-galera hori babestuko.
- Eraman den kudeaketa lardaskeri hutsa izan da.
- Aunque desde hace mucho se ha venido advirtiendo de que la forma de llevar el tema no era correcto, no se les ha hecho ningún caso.
- Su grupo no va a proteger esa pérdida de dinero.
- La gestión llevada a cabo es una verdadera chapuza.

Aldasoro jaunak adierazpen hauek egiten ditu:

- Denbora guzti honetan zehar egindako proposamenei ez zaie jaramonik egin.
- Konklusio gisa, gobernu taldeak eramán duen gestioa oso txarra izanda eta erakutsi duen burugogorkeri handia.

Alkateak, esan duten guztiarekin ados ez dagoela baina entzuten duela.

Gaiaren inguruko eztabaida bati hasiera ematen zaio, zeinean Alkateak gaiaren prozesuaren azalpen bat ematen duen eta taldeek aurretik esandako iritzietan sakontzen duten.

### **PLANEAMENDUA**

**HAPO-REN IDAZKETAREN OINARRI  
IZANGO DEN AURRERAPEN  
DOKUMENTUAN JASOTA DAUDEN  
IRIZPIDE ETA HELBURUEN BERRESPENA.**

Joan zen Batzorde Informatzaileetan Udál-kideei jakinarazi zitzaie.

El Sr. Aldasoro realiza la siguiente manifestación:

- No se han tenido en cuenta las propuestas realizadas durante todo este tiempo.
- A modo de conclusión, la gestión que ha llevado a cabo el equipo de gobierno ha sido muy mala, además de la cabezonería que han mostrado.

El Alcalde responde que no está de acuerdo con todo lo que han dicho, pero que lo escucha.

Se da comienzo a un debate sobre el tema en el que el Alcalde concluye explicando cual ha sido el proceso de este tema y en el que cada grupo se reitera en sus opiniones vertidas anteriormente.

### **PLANEAMIENTO**

**RATIFICACIÓN DE CRITERIOS Y OBJETIVOS  
CONTENIDOS EN EL DOCUMENTO DEL  
AVANCE QUE SERVIRÁN DE BASE PARA LA  
REDACCIÓN DEL PGOU.**

Se informó a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

2013ko apirilaren 24an Planeamenduzko Batzordea ospatu zen, bertan, Olaberriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentuari zein Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari egindako iradokizun eta alternatibak aztertzen dituen txostena azaldu zelarik. Txosten hau, Soroa Arquitectos, S.L.P eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U. –k egindakoa da 2013ko apirilaren 18ko datarekin.

Aipatu txostenean aurkeztutako hamasei iradokizun eta alternatibak banan bana aztertzen dira eta aurrekoa ikusirik, Aurrerapen Dokumentuan zehaztutako Irizpide eta Helburuen onespena proposatzen da, zenbait zuzenketekin.

Aipatu txostena aztertu ondoren, HAPO-ren idazketaren oinarri izango diren Irizpide eta Helburuak zeintzuk izango diren erabakitzea dagokio.

Bozketari hasiera ematen zaio, honako akordio honetara heltzen delarik gehiengo absolutuz, BILDU eta OHE taldeen aurkako botoekin:

PRIMERO: Aurrerapen dokumentuan jasotako Irizpide eta Helburuak berresten dira Soroa Arquitectos, S.L.P eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U. –k elkarrekin 2013ko apirilaren 18an egindako txostenean adierazten diren zuzenketekin:

**1.-** IIBEA-ren 5.2.9 ataleko erredakzioa aldatzea ondoren adierazten den bezala:

Que el 24 de abril de 2013 se celebró la Comisión de Planeamiento en la que se expuso el informe relativo al estudio de las sugerencias realizadas y alternativas propuestas en el período de exposición al público del Documento del Avance y del Estudio de Evaluación de Impacto Ambiental del Plan General de Ordenación Urbana de Olaberria, redactado conjuntamente por Soroa Arquitectos, S.L.P. y EKOS Estudios Ambientales, S.L.U., de fecha 18 de abril de 2013.

En el citado informe se analizan individualmente las dieciséis sugerencias y alternativas presentadas y visto lo anterior, se propone la ratificación de criterios y objetivos expuestos en el Documento del Avance, con ciertas correcciones.

Una vez analizado el citado informe, procede acordar cuales van a ser los Criterios y Objetivos a adoptar que servirán de base para la redacción del PGOU.

Se procede a la votación tras la que se acuerda lo siguiente por mayoría absoluta, con el voto en contra de los grupos BILDU y OHE.:

PRIMERO: Se acuerda la ratificación de los Criterios y Objetivos contenidos en el Documento del Avance con las siguientes correcciones recogidas en el informe redactado conjuntamente por Soroa Arquitectos, S.L.P. y EKOS Estudios Ambientales, S.L.U., de fecha 18 de abril de 2013:

**1.-** Modificar la redacción del apartado 5.2.9 de la ECIA de la siguiente manera:



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

Hurrengo taulan, kontutan hartutako ingurumen-aldagarriak jasotzen dira eta hauen afekzioa deskribatzen da, ondoko tipifikazioa kontutan izanik:

- Negatiboa.
- Ez da afekzio maila aldatzen.
- Alternatiben artean ez du bereizten.

Taulak aipatu atalari atxikituz.

**2.-** IIBEA-ren 5.2.9.1 atalaren erredakzioa aldatu, "potentzialki kutsatutako gunen"-ei dagokion lerroan ondoren adierazitako eran:

Ez da afekzio maila aldatzen

Tiro platoko jarduerak bere hondakinen kudeaketa zein lur mugimenduen kasuetan zoruaren kontrola inplikatzeko du. Hori dela eta, kokapena mantentzeak arazo honen bikoiztea saihestuko luke, beste kokapen berri bati afektatuz.

**3.-** Orain dela gutxi tiro platoan egindako zoruaren laginen ziurtagiriak Plan Orokorraren espedienteari atxikitu. Basozabal errekaetan ur analisiak egin.

**4.-** Plangintza Orokorraren espedienteari, Ingurumeneko Organoari izapidea hasi den unean indarrean zegoen araudiaren arabera prozedura jarraitu behar den argitzeko eskaera agiria, atxikitzea.

En la siguiente tabla, se recogen las variables ambientales consideradas y se describe la afección, teniendo en cuenta la siguiente tipificación:

- Negativo.
- No varía el nivel de afección.
- No discrimina entre las alternativas.

Y ajustando las tablas de dicho apartado.

**2.-** Modificar la redacción del apartado 5.2.9.1 de la ECIA en la fila correspondiente a "emplazamientos potencialmente contaminados" de la siguiente manera:

No varía el nivel de afección

La actividad de campo de tiro implica la gestión de sus residuos y el control del suelo en caso de movimientos de tierra. Por ello, el mantenimiento de la ubicación evitaría duplicar esta problemática afectando a otro nuevo emplazamiento.

**3.-** Adjuntar certificados de muestras del suelo realizadas recientemente en el ámbito del campo de tiro, al expediente del Plan General. Realizar análisis de aguas en la regata Basozabal.

**4.-** Adjuntar el documento de solicitud al Órgano Medioambiental sobre verificación de continuidad del procedimiento según la normativa vigente en el momento de inicio del trámite, al expediente del Plan General.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

**5.-** Tiro zelaiaren neurriko mugaketa egitea, bere muga gutxienez, Santiagoko Bidearen trazatutik hiru metro atzeratuz.

**6.-** Santa Luzia bizitegi-gunearen eraikigarritasuna murriztea, urbanistikoki, ekonomikoki zein ingurumen ikuspuntutik bideragarria izango den eremu iraunkor baten garapen helburuak lortzeko behar-beharrezkoa denari mugatua.

**7.-** Tiro zelairako ekipamendu zoru eremu berri baten kalifikazioa bideratzearen aukera berrikustea, aztertutako kokapenen batean, bi eremuen elkarbizitza hirigintza egoera ahalbidezko Plangintza Orokor honen indarraldian zehar, jardueraren lekualdatze ordenatua eduki ahal izateko, gelditzerik gabe.

**8.-** Miraballes baserrian litekezkotako jarduketak ezabatzea, birgaitze zein mantenu lanak izan ezik.

**BIGARRENA:** Iradokizun eta alternatibak aurkeztu duten pertsonen akordio honen banakako jakinarazpena egitea.

Eztabaida bati hasiera ematen zaio, ondorio hauetara heltzen direlarik:

Iñigo Sarasola jaunak honako ondorioztatzen du:

- Ez da onargarria bi bilera egin ondoren hainbeste garrantzia duen gai baten inguruan akordio hau

**5.-** Ajustar la delimitación del campo de tiro, retirando su límite al menos tres metros del trazado del Camino de Santiago.

**6.-** Reducir la edificabilidad del ámbito residencial de Santa Luzia a lo estrictamente necesario para la consecución de los objetivos de desarrollo de un ámbito sostenible desde el punto de vista urbanístico y medioambiental y económicamente viable.

**7.-** Revisar la posibilidad de habilitar la calificación de un nuevo ámbito de suelo de equipamiento para el campo de tiro, en uno de los emplazamientos estudiados, de tal manera que se posibilite una situación urbanística de convivencia de los dos ámbitos, en el periodo de vigencia de este Plan General, que permita un traspaso ordenado de la actividad, sin paralización de la misma.

**8.-** Eliminar posibles actuaciones del caserío Miraballes, a excepción de operaciones de mantenimiento y rehabilitación.

**SEGUNDO:** Notificar el presente acuerdo individualizadamente a las personas que han presentado sugerencias y alternativas.

Se inicia un debate donde se llegan a las siguientes conclusiones:

El Sr. Iñigo Sarasola concluye que:

- Es inaceptable que tras dos reuniones se tome este acuerdo en un tema tan importante.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

hartzea.

- Funtsez teknikarien lana izan dela, udal-kideak apenas parte hartu dutelarik.
- Sakonki jorratu behar den gaia dela kontsideratzen du, zalantza asko airean geratu direla eta beharrezkoa dela zinegotzien arteko bat-etortzea, gaiak aurrera egin dezan.
- Considera que ha sido un trabajo casi exclusivamente de los técnicos, sin que los corporativos apenas hayan tomado parte.
- Cree que es un tema que se ha de tratar en profundidad, que se han quedado muchas dudas en el tintero y que es necesario llegar a un consenso entre los corporativos para llevar este tema adelante.

Bere aldetik Alkateak honako hau ondorioztatzen du:

- Bilerak egin zirenetik Sarasola jaunak soilik behin Idazkariarengana jo duela bere zalantzak argitzeko.
- Zinegotziek aukera daukatela, egoki baderitzote, gaia tratatzeko beharrezkoak diren bilerak planteatzeko. Inork ez du planteamendu zehatzik egin.
- Gaur onartu dena oinarrizko irizpide batzuk dira, garatu eta forma eman beharko zaiena, denak parte hartzeko aukera edukiko dutelarik.

Por su parte, el Alcalde concluye lo siguiente:

- Que desde que se hicieron las reuniones el Sr. Sarasola sólo ha ido a aclarar dudas con la Secretaria únicamente una vez.
- Que los concejales tienen opción de plantear, si así lo consideran necesario, las reuniones que haga falta para tratar el tema. Nadie ha hecho un planteamiento concreto.
- Que lo que se ha aprobado hoy son unos criterios básicos que habrá que desarrollar y darle forma, donde todos podrán tomar parte.

**AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA**

**HARIZTI INDUSTRIA POLIGONOAREN  
HERRIKO ARGIAK ALDATZEKO  
LUMINARIA ETA LANPAREN HORNIDURA  
KONTRATUAREN ESLEIPEN  
PROPOSAMENA.**

**INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO**

**PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN DEL  
CONTRATO DE SUMINISTRO DE  
LUMINARIAS Y LÁMPARAS PARA LA  
MODIFICACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO  
DEL POLÍGONO INDUSTRIAL HARIZTI.**



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Joan zen Batzorde Informatzailean Udal-Kideak jakinaren gainean jarri ziren.

Gaitasun nahikoa duten hiru enpresei gonbita luzatu ondoren, honako lizitatuak hauek aurkeztu dira:

- ELEKTRA, S.A.
- ERKA MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L.

2013ko apirilaren 9an kontratazio mahaia biltzen da "Agiri juridiko-administratiboei" dagokien A kartazala irekitzen da eta aztertu ondoren, bi lizitatuak dagokien agiri GUZTIAK era EGOKIAN aurkeztu dutela ondorioztatzen da.

2013ko apirilaren 12an saio publikoak berriz ere kontratazio mahaia biltzen da "B" kartazala HORNIDURAREN XEDE DEN MATERIALARI DAGOZKION IRIZPIDE TEKNIKOAK eta "C" kartazala ESKAINTZA EKONOMIKOA deritzona irekitzeko, uda aparejadoreari emandako agiriaren balorazio txostenaren igorpena eskatzen zaiolarik.

Udal aparejadoreak aurkeztutako proposamenen balorazio txostena igortzen du 2013ko apirilaren 23ko datarekin, lizitatuak lortutako azken puntuaketa honako hau izanik – 100 puntutik -:

- ELEKTRA, S.A.: 46,3 puntu.
- ERKA MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L.: 96 puntu.

Ondorioz zera proposatzen da: aipatu kontratuaren esleipena ERKA

Los Corporativos fueron informados en la pasada Comisión Informativa.

Tras cursar invitación a tres empresas suficientemente capacitadas, se presentan los siguientes licitadores:

- ELEKTRA, S.A.
- ERKA MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L.

La mesa de contratación se reúne el 9 de abril de 2013 y se procede a la apertura del sobre A "documentación jurídico-administrativa" y tras examinarla se concluye que los dos licitadores han presentado de forma CORRECTA y COMPLETA la documentación requerida.

El día 12 de abril de 2013 se vuelve a reunir la mesa de contratación en sesión pública para la apertura de los sobres "B" CRITERIOS TÉCNICOS REFERIDOS AL MATERIAL OBJETO DE SUMINISTRO y "C" OFERTA ECONÓMICA y se decide solicitar informe de valoración de la documentación aportada a la aparejadora municipal.

La aparejadora municipal emite informe de valoración de las propuestas presentadas con fecha de 23 de abril de 2013, en el que la puntuación final obtenida- sobre 100 puntos- por los licitadores es la siguiente:

- ELEKTRA, S.A.: 46,3 puntos.
- ERKA MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L.: 96 puntos

Se propone por tanto, la adjudicación del referido contrato a favor de ERKA



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L., enpresaren alde izatea, Udalarentzat proposamen onuragarriena den heinean.

Bozketari hasiera ematen zaio, honako erabaki hauek hartuz aho-batez:

LEHENEGO: Harizti industrialdearen herriko argiak aldatzeko luminaria eta lanparen horniduraren kontratua ERKA MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L., enpresari esleitzea, Udalarentzat proposamen onuragarriena den heinean

BIGARRENA: Akordio hau interesdunei jakinaraztea, udal aparejadoreak egindako proposamenen balorazio txostenarekin batera.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU**  
**TEKNIKOAK**

**3.000 EUROTIK GORAKO**  
**FAKTUREN ONARPENA.**

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzaien udal-kideei.

MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L., por ser la oferta más ventajosa para el Ayuntamiento.

Se procede a la votación, adoptándose por unanimidad los siguientes acuerdos:

PRIMERO: Adjudicar el contrato de suministro de luminarias y lámparas para la modificación del alumbrado público del polígono industrial harizti a ERKA MATERIALES ELÉCTRICOS, S.L., por ser la oferta más ventajosa para el Ayuntamiento.

SEGUNDO: Notificar el presente acuerdo a los interesados, junto con el informe de valoración de las propuestas emitido por la aparejadora municipal.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS**  
**MUNICIPALES**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS**  
**SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	IZFE	A20456976	99-459/2013	FRA. 2013/459	5.530,96 €
2	MAPFRE EMPRESAS	A28725331	99-415/2013	ERANTZUKIZUN ZI	4.142,19 €
3	EULEN S.A.	A28517308	99-414/2013	FRA. 2637352	4.267,11 €
4	TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L.	B20719456	99-410/2013	FRA. 300000111	19.622,32 €
5	GOROLDI S.L.U.	B20502613	99-407/2013	FRA. 1300362	3.220,90 €
6	GOIMEN ELKARTEA	G20188652	99-387/2013	FRA. 14/13	3.757,93 €
7	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	P200000F	99-373/2013	KUDEAKETA	3.432,11 €
8	GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA	G20117156		2013KO EKARPEN#	7.141,00 €
9	COLEGIO OFICIAL DE APAREJADORES	Q2075002B		FRA. 52410	3.289,66 €
10	E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P.	B20826426		FRA. 19/13	3.502,61 €
11	BIZIBIZIKI S.L.	B75016246		FRA. T-31	4.878,72 €
12					
13					
14					

Fakturak bozkaten dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, BILDU zein OHE taldeko abstentzioarekin.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con la abstención de los grupos BILDU y OHE.

**DIRUZAINZAREN  
INFORMAZIOA.**

**EGOERA.**

**SITUACIÓN DE TESORERÍA.  
INFORMACIÓN.**

Udal-kideei 2013ko maiatzaren 13ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzairen joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 13 de mayo de 2013.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **1.562.059,21 euro** ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **1.562.059,21 euros**.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.

**2012 URTEKO KONTU OROKORRAREN  
BEHIN BEHINEKO ONARPENA ETA  
JENDAURREAN JARTZEA**

**APROBACIÓN INICIAL Y EXPOSICIÓN AL  
PÚBLICO DE LA CUENTA GENERAL 2012.**

Joan zen Batzorde Informatzailean Zinegotziei gaia azaldu zitzairen.

En la pasada Comisión Informativa los Concejales fueron informados del tema.





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, BILDU eta OHE taldeen abstentzioarekin:

**BAKARRA:** hasierako onarpena ematea Olaberriko Udaleko 2012. ekitaldiari dagokion Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Udal honetako Kontuetako Batzorde Bereziak 2013ko maiatzaren 16an aldeko txostena eman zion Olaberriko Udaleko 2012 ekitaldiari dagokion Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorrari, eta Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63 artikulua agindutakoaren arabera, jendaurrean jartzen da 15 egunetan.

Epe horretan interesatuek erreklamazio, eragozpen edo oharrak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxeko Idazkaritzan, bulego orduetan.

**1/2013 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA, KREDITU TXERTAKETA MODALITATEAN: BEHIN BEHINEKO ONARPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA.**

Joan zen Batzorde Informatzailean Zinegotziei gaia azaldu zitzaien.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du aho batez:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Pleno acuerda lo siguiente por mayoría absoluta y con la abstención de los grupos BILDU y OHE:

**UNICO:** aprobar inicialmente la Cuenta General del Presupuesto Municipal del Ayuntamiento de Olaberria correspondiente al ejercicio 2012.

En cumplimiento de lo establecido en el art. 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa, queda expuesta al público durante 15 días la Cuenta General del Presupuesto Municipal del Ayuntamiento de Olaberria correspondiente al ejercicio 2012, que ha obtenido el informe favorable de la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento el 16 de mayo de 2013.

En ese plazo los interesados podrán presentar reclamaciones, reparos y observaciones en la Secretaría del Ayuntamiento en horas de oficina.

**MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 1/2013, MODALIDAD INCORPORACIÓN DE CRÉDITOS: APROBACIÓN INICIAL Y EXPOSICIÓN AL PÚBLICO.**

En la pasada Comisión Informativa los Concejales fueron informados del tema.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Pleno acuerda por unanimidad:



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

**LEHENENGOA:** hasierako onarpena ematea 1/2013 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu txertaketa modalitatean, Udalaren 2013ko aurrekontuaren barruan.

**BIGARRENA:** Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 eta 34.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, aipatu espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki baten bidez.

### **UDALETXEKO LANGILEAK**

#### **2013. URTEKO PLANTILLA ORGANIKO ETA UDALETXEKO LANGILEEN LANPOSTU ZERRENDAREN ONARPENA.**

Joan zen Batzorde Informatzailean Zinegotziei gaia azaldu zitzairen.

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 90.1 artikuluan, 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2013 urterako Olaberriko Udaletxeko pertsonalaren plantila eta lanpostuen zerrenda aurkezten zaizkio Udalbatzari.

Gaia behar den bezala aztertu ondoren, honako hau erabakitzen da aho-batez:

**LEHENA:** 2013 urterako Olaberriko Udaletxeko pertsonalaren plantila eta lanpostuen zerrendari onarpena ematea.

**PRIMERO:** aprobar inicialmente el Expediente de Modificación de Créditos, nº 1/2013 en la modalidad de incorporación de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2013.

**SEGUNDO:** En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 34.3 y 15.1 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las entidades locales, someter el acuerdo a información pública, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

### **PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO**

#### **APROBACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA Y LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO 2013.**

En la pasada Comisión Informativa los Concejales fueron informados del tema.

De conformidad con el art. 90.1 de la Ley de Bases de Régimen Local, el art. 127 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, y el art. 16 de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, se presenta al Pleno la plantilla de personal y la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Olaberria para el ejercicio 2013.

Una vez estudiado suficientemente el tema, se acuerda por unanimidad lo siguiente:

**PRIMERO:** aprobar la plantilla de personal y la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Olaberria para el ejercicio 2013.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honi dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

SEGUNDO: publicar el anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.”

### **JAIK**

#### **SAN JOAN JAIK.**

Joan zen Batzorde Informatzailean Zinegotziei gaia azaldu zitzaien.

### **FIESTAS**

#### **FIESTAS DE SAN JUAN.**

En la pasada Comisión Informativa los Concejales fueron informados del tema.

### **GALDERA ETA ERREGUAK**

#### **Iñigo Sarasola jaunak(BILDU) egindako galdera eta erreguak**

- **San Joaneko arbola**
- San Joaneko zuhaitzaren tradizioa eskuratzeko helburuarekin taldea antolatzeke prest dago, jarritako hiru kondiziopean.
- Alkateak zera erantzuten dio: kondizioak ardura eta segurtasunarekin zerikusia dutenak izango dira iaz gertatu zena gerta ez dadin; gainontzekoa jai batzordean planteatu beharko da.

### **RUEGOS Y PREGUNTAS**

#### **Ruegos y preguntas formuladas por Iñigo Sarasola (BILDU)**

- **El árbol de San Juan**
- Están dispuestos a recuperar la tradición de la izada del árbol de San Juan, cumpliendo los tres requisitos solicitados.
- El Alcalde le responde lo siguiente: las condiciones versarán sobre temas de responsabilidad y seguridad al objeto de que no vuelva a ocurrir lo del año pasado; el resto se deberá plantear en la comisión de fiestas.



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
(GIPUZKOA)

- **Legealdi erdia igaro ondorengo gogoetak**

- Legealdiaren erdia igaro ondoren, komunikazio falta nabari bat egon dela ondorioztatzen da.
- Batzorde informatzaile iraunkorretako lehendakariak eskatzen die bi hitzetan azaldu dezaten bi urte hauetan egin dutena, Udala ordezkaria duen organo kolegiatuaren jardueran bereziki hausnartuz.
- Informazio falta salatzen du.

Alkateak, Udaletxean aurrera eramán diren gaiak dagokienaz dio zinegotzi guztiak informatuak daudela ospatzen diren batzorde informatzaileen bitartez.

Beste gai zehatz batzuetarako, galdetzerik besterik ez dago.

Bestalde, Alkateak Sarasola jaunari Udalak Goimen erakundeak daukan ordezkariak nahi duen galdetzen dio, honek erantzuten diolarik formalki proposamena egin dezala eta ondoren berak bere taldearekin batera organo honen edo beste baten (Sasieta) ordezkariak onartzen duen ikusiko duela.

- **Eskola txikiak**

Zera aditzera eman nahi du: Eskola txikiak ospakizunari begira, Goierriko Udalak konpromesua hartu dutela ahal duten

- **Reflexiones a cerca de la mitad de la legislatura.**

- Transcurrida la mitad de la legislatura se concluye que ha habido una falta de comunicación.
- Solicita a todos los presidentes de las comisiones informativas permanentes, que expongan en cuatro palabras lo que cada uno ha hecho en esto dos años, incidiendo especialmente en la actividad correspondiente a los órganos colegiados en los que el Ayuntamiento tiene representación.
- Denuncia la falta de información.

El Alcalde le responde que en lo que respecta a los temas que se han llevado a cabo en el Ayuntamiento, todos los concejales están informados a través de las comisiones informativas a las que asisten.

Para otros temas en concreto, no tienen más que preguntar.

Por otro lado, el Alcalde ofrece al Sr. Sarasola la representación del Ayuntamiento en Goimen, a lo que éste le responde que lo plantee formalmente y que él junto con su grupo decidirá si acepta ser el representante de Goimen o de otro órgano como puede ser Sasieta.

- **Eskola txikiak**

Comunica que en relación a la celebración de las escuelas txikiak, los municipios de Goierri se han comprometido a hacer una



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

heinean, ospakizuna diruzlaguntzeko.

Alkateak eskerrak ematen dizkio.

**Jose Bernardo Aldasoro jaunak(OHE)  
egindako galdera eta erreguak**

- **Gobernuarekin harremana**
- Bere taldeari ez zaio gustatzen Udalak daukan lana egiteko era.
- Ez dakitenez gobernu taldeak lan egiteko ze irizpide manejatzen dituen, ez dakite nola jardun.
- Zer gertatzen da 15-ero egin beharreko bilerekin??

Alkateak esaten dio begiratuko duela ea nola egin izango diren hamabosteroko bilera horiek.

- **Errekalden dagoen udaletxeko pisua**

Urtarrilaren 13ko Batzarrean onartu zen bezala, sententzia aztertzea eskatzen du eta udal etxebizitza horren alokairu horren egoera berraztertzea.

Era berean gogorarazten du Batzarrak giza larrialdietarako aurreikusitako pisu bakarra Zezilionean dagoela.

- **San Joan kaleko udal etxebizitza.**

Pisu horren alokairuarekin zer gertatuko den galdetzen du, 1.7 etxebizitzaren exekuzioaren uko egiteari onartu ondoren.

Alkateak, gertatutakoaren ondoren, zein

aportación económica, en la medida de sus posibilidades.

El Alcalde se lo agradece.

**Ruegos y preguntas formuladas por José  
Bernardo Aldasoro (OHE)**

- **Relación con el Gobierno**
- A su grupo no le gusta la forma de trabajar del Ayuntamiento.
- Al no conocer los criterios que se manejan a la hora de trabajar, no saben de qué forma actuar.
- ¿Que ocurre con las reuniones que iban a celebrar cada quince días?

El Alcalde responde que va a ver cómo se pueden articular esas reuniones quincenales.

- **Piso municipal de Errekalde**

Tal y como se acordó en el Pleno del 13 de enero, solicita que se analice la sentencia y se proceda a valorar el estado del alquiler de esa vivienda municipal.

Recuerda que el único piso de emergencia social acordado en Pleno está en Zezilionea.

- **Piso municipal de la calle San Joan**

Pregunta a cerca de qué va a ocurrir con esa vivienda tras el desistimiento de la ejecución de las viviendas del 1.7.

El Alcalde responde que tras este



**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**

egoera juridikoan aurkitzen den aztertu beharko dela dio.

acontecimiento, se deberá analizar en qué situación jurídica se encuentra.

**Bertaratutako jendeak aurkeztutako galdera eta erreguak**

- Jon Zubiarrain jaunak, Euskara Batzordearen inguruko zenbait zalantza eta galdera botatzen ditu, Euskara Batzordeko Lehendakaria den Amaia Cuellar andreak erantzuten diolarik.
- Jon Zubiarrain jaunak, Udalak HJE 1.7 lursailarekiko dituen asmoen berri galdetzen du, Alkateak, orain izapidetzen ari den Planeamenduaren baitan dagoela erantzuten diolarik.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko zazpiak eta hamabi direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**Ruegos y preguntas formuladas por el público**

- El Sr. Jon Zubiarrain realiza varias preguntas a cerca de la Comisión de Euskara, preguntas que responde la Sra. Amaia Cuellar, Presidenta de la Comisión de Euskara.
- Jon Zubiarrain pregunta a cerca de la intención del Ayuntamiento para con la parcela de la UAU 1.7, a lo que el Alcalde le responde que estará en función del Planeamiento que se está llevando a cabo en este momento.

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las diecinueve horas y doce minutos, y yo, el Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**